# AINGERU IRIGARAI
# (BERA 1899 - DONOSTIA 1983)

## IN MEMORIAM

Aingeru Irigarai jauna, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Nagusiaren biziarteko kidea eta Euskaltzaindiko euskaltzain osoa aurtengo Azaroaren 28an hil zen Donostian.

Beran jaio zen 1899an eta Barcelona, Paris eta Friburgon egin zituen medikuntza-ikasketak.

27 urte zituela Iruñeko Ongintzako sendagile izan zen, eta hiru tute geroago hiri horretako Txikien Auzitegikoa.

Aingeru Irigarai, Eusko Ikaskuntzako gerrateaurreko taldeko partaidea, "Euskararen Adiskideak" taldearen ordezkari izan zen bertan.

Sendagile liberal baten semea. Liberala, abertzalea, Eusko Ikaskuntzako Idazkariordea izan zen 1934 tik aurrera eta Elkartearen berreraikuntza lanetan parte hartu zuen bigarren aldian Agustin Zumalaberekin batera. Bigarren aldi honetan Manuel Lekuona jaunarekin batera Eusko Ikaskuntzako itzultzaile ofiziala izan zen.

Aldizkari anitzetan izan zen lankide eta Antonio Arrue eta Koldo Mitxelena jaunarekin batera, Egan euskal literatur aldizkaria zuzendu zuen.

Bere liburuen artean, Cuentos populares vascos, Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca, Noticias y viejos textos de la lengua navarrorum, eta geografia diacrónica de El Euskara en Navarra azpimarra ditzakegu.

Aingeru, herriaren ezagule, herriko tradizio eta ohituren zale, gizon jator, alai eta atsegin, Eusko Ikaskuntzako sustatzailearentzat gure zinezko oroimen eta eskerronik sakonena.

D. Aingeru Irigaray, miembro vitalicio de la Junta Permanente de la Sociedad de Estudios Vascos y miembro de número de la Real Academia de la Lengua Vasca, falleció el 28 de noviembre de este año en Donostia.

Nacido en Vera de Bidasoa en 1899, cursó estudios de medicina en Barcelona, París y Friburgo.

A los 27 años fue médico de la Beneficencia en Pamplona, y tres años más tarde, en el Tribunal de Menores de la misma ciudad.

Aingeru Irigaray, perteneciente al equipo de preguerra de la Sociedad de Estudios Vascos, fue el representante de “Euskararen Adiskideak” en la misma.

Hijo de médico liberal. Liberal, simpatizante nacionalista, fue Vicesecretario de la Sociedad de Estudios Vascos desde 1934, tomando parte activa en la reconstrucción de la Sociedad en su segunda etapa junto a Agustín Zumalabe. Fue el traductor oficial de la Sociedad de Estudios Vascos junto a D. Manuel Lekuona en esta segunda etapa.

Colaboró en multitud de revistas y dirigió junto a Antonio Arrúe y Luis Michelena, la revista de literatura vasca Egan.

Entre sus libros destacan: Cuentos populares vascos, Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca. Noticias y Viejos textos de la lingua navarrorum, y una geografía diacrónica de El Euskara en Navarra.

Para Aingeru, gran conocedor del país, amante de sus tradiciones y costumbres, hombre fino, jovial y exquisito, animador de la Sociedad de Estudios Vascos, nuestro recuerdo y agradecimiento más sincero y profundo.